

NIRE PROIEKTUTIK HORIZONTE EUOPARAKO BUSINESS CASE BAT EGITEA


EMAN IZENA



DATAK ETA ORDUTEGIA	Asteartea, apirilak 28. 9:00etatik 11:30etara.
FORMATUA	Online.
LEKUA	Esteka plaza baieztatzerakoan bidaliko da.
IRAUPENA	2,5 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik: • Horizonte Europarako I+G+Bko proiektu europarrak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat. • Horizonte Europako programetan I+G+B proiektuak aurkezten, kudeatzen eta justifikatzen eskarmentua dutenentzat. * Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- *Business plan*, *business model* eta laburpen exekutibo bat bereiztea.
- *Business case*-aren elementu nagusiak ezagutzea.
- *Business case*-aren inguruko ezagutzak baliatzea, aurkeztutako proiektuetan eragin handiagoa lortzeko.
- Bazkide/partaideen merkatu-aukerak ezagutzea eta Europar Batasunean hedatzea epe labur eta ertainean.



PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

1. Zer da *business case* bat? *Business plan*, *business model* edo laburpen exekutiboaren arteko desberdintasunak.
2. *Business case* txantiloia eta elementuak:
 - Helburua.
 - Ingurune ekonomikoa / enpresariala (helburu-merkatua eta tamaina Europar Batasunean eta globalean).
 - Arazoaren planteamendua eta merkatuarekiko egokitzapena.
 - Suposizioak eta murrizketak.
 - Alternatiba bideragarriak.
 - *Stakeholder*-en araberrako aukeren konparazioa eta sailkapena.
 - Beharrezko lan-plana, aurrekontua eta antolaketa-baliabideak.
 - Espero den *outcome*-a eta adierazleak betetzea.
 - Zuzendaritza, kalitatea eta arriskuen analisia.
3. Europako Batzordeak proiektutik espero duen eragina: merkatu-aukerak hobetzea eta Europar Batasunean hedatzea epe labur eta ertainean.

NOREKIN



**JAVIER MEDINA
ANTÓN**

Qi EUROPEko CEO-a

Ekonomialaria, finantzetako espezialitatea. Negozio Energetikoetako eta PDGko masterra, IESE Business Schoolen. Madrilgo Ekonomisten Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Erkidegoko enpresa-mentore ziurtatua eta Europako Batzordeko Women Leadership programako mentorea. 1995 urtetik geroztik, bere lanbide karrera garatu du negozio-eredu berrien diseinu eta garapen estrategikoan (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioak, errentagarritasunak eta kostuak, *seed & startup* kapitala, *private equity*, *venture capital*, lehiakortasuna eta produktibitatea), teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+B proiektuak (teknologiaren brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, DFC eta *Venture Capital Method* balorazioa, egituraketa, negozioazioa eta salmenta/aliantzak), bai eta I+G+B proiektuak idatzi, kudeatu eta justifikatzea ere, eta negozio berriak garatzea (merkatua erakartzea, dibertsifikatzea, hazkundera eta nazioartekotzea) ingurune digital/teknologiko/industrialean, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzu teknologiko berrien garapenean erantzukizun zuzena dutenetan.

